



ABIAN DA EUSKAL HERRIKO XV.MUS TXAPELKETA zazpi herrialdetako muslariak batzen dituen nazio txapelketako herriz herriko fasea abiatzera doa.

AURREKO TXAPELKETA:

2023ko martxoaren 23an jokatu zen 2022-2023 urteko Euskal Herriko 14. Mus txapelketa Bizkaiko Zornotza herrian. Finalean lehia azkarra izan zen Nafarroa Garaia eta Behe Nafarroaren artean, azkenean txapelak Irissarrira joan ziren. RAMUNTXO ONDARTS eta THIERRY OLAIZOLA gailendu zitzairen San Martins Unx eko JOSE LUIS LARA eta HERVE CASARI. [Informazio guztia hemen.](#)

ZERGATIK, EUSKAL HERRIKO MUS TXAPELKETA?

Euskal Herrian ohikoenetakoa den mahai jokoa izanik eta mus txapelketa ezberdinak antolatzen direla ikusirik, Euskal Herri osoko muslariak bildu eta antolatzeko helburuari ekin genion.

Bide honetan sortu genuen Euskal Herriko Mus Federazioa. Zazpi herrialdetako muszale eta muslariez osatzen da eta gure herriak bizi duen zatiketa administratiboaz gaindik, nazio bakar gisa antolatu eta garatzen dugu gure jarduna eta aldi berean nazio kontzientzia indartu.

Musean jokatzeko dauden modu eta ohitura ezberdinei lekua eskaintzen diegu herrietako kanporaketetan eta ondoren guztientzako joko arau eta irizpideak bateratu eta bat eginik antolatzen dugu Euskal Herri osoko txapelketa.

HERRIZ HERRI, HERRIALDEZ HERRIALDE

Garrantzi berezia eman nahi diogu txapelketaren zabalpenari, ahalik eta herri gehienetan antolatu nahi dugu herrietako kanporaketa eta horretarako norbere herrian edonork lagundu diezaguke txapelketa antolatzen. www.ehmus.eu webgunea bisitatu edo gurekin harremanetan jartzea nahiko du, guk zonaldeaz arduratzen den federazioko kidearekin lotuko dugu eta musaren amarauna josten eta zabaltzen jarraituko dugu.

Dagoeneko Euskal Herriko Mus Txapelketako finalak 7 herrialdeak bisitatu ditu eta aurten **Zuberoara** itzultzen da, zehazki **ALTZAIN** burutuko da. Finala 2024ko martxoaren 23an ospatuko da eta egun horretarako musa eta jaia uztartuko dituen egitaraua prestatu asmo dugu herritarrek eta [Altzai-Altzabeheti-Zunharreta](#)ko herriko etxeak lagunduta.

Euskal Herriko Mus Federaziotik, Euskal Herri luze zabalera parte hartzeko deia luzatzen dugu. Txapelketa antolatzen den lekuan musean eginaz eta aurreko urteetan antolatzera iritsi ez garen lekuetan, indar berezia egin nahi dugu, norbere herrian kanporaketa antolatzeko prest legokeen bolondresak gurekin harremanetan jartzera deitzen ditugu txapelketa zabaldu asmoz.





INFORMAZIO OROKORRA eta DATUAK

Dagoeneko abian da Euskal Herriko XV. Mus Txapelketa nazionalerako kanporaketa eta. Hemen dituzue nazio mailako mus txapelketaren xehetasun nagusiak..

PARTE HARTZEA: lazko txapelketan, Euskal Herri osoko 220 herri ingurutan jokatu zen txapelketako lehen konparaketa, gutxi gora behera, 4.000 pertsonen parte hartu zuten, aurreko urteetako datuak gogoratuko ditugu:

- 2009ko txapelketan 1.120 bikotek parte hartu zuten mus txapelketan.
- 2010eko txapelketan 1.800 bikotek parte hartu zuten txapelketan.
- 2011ko txapelketan 2.200 bikotek parte hartu zuten txapelketan.
- 2012ko txapelketan 2.250 bikotek parte hartu zuten txapelketan.
- 2013ko txapelketan 2.060 bikotek parte hartu zuten txapelketan.
- 2014ko txapelketan 2.125 bikotek parte hartu zuten txapelketan.
- 2015eko txapelketan 2.100 bikotek parte hartu zuten txapelketan.
- 2016eko txapelketan 2.050 bikotek parte hartu zuten txapelketan.
- 2017ko txapelketan 2.040 bikotek parte hartu zuten txapelketan.
- 2018ko txapelketan 2.150 bikotek parte hartu zuten txapelketan.
- 2019ko txapelketan 2.300 bikotek parte hartu zuten txapelketan.
- 2020ko txapelketa ez zen antolatu.
- 2021ko txapelketan 2.000 bikotek parte hartu zuten txapelketan.
- 2022ko txapelketan 2.100 bikotek parte hartu zuten txapelketan.

Euskal Herriko zazpi herrialdeetako edonork parte hartu dezake txapelketan. Bere herrian antolatzen den lekuan izen eman edo agertzearekin eta bikoteko 20 euro ordaintzearekin nahikoa du.

Azken urtean gazte eta emakumeen parte hartzea indartzen ari da. Lanean jarraituko dugu joera hau indartu eta zabaldu dadin.

ZABALPENA: Gutxi gora behera Euskal Herri osoko 220 herritan jokatzen da Euskal Herriko Mus Txapelketa. Bere herrian txapelketa antolatu nahi duenak aukera du [webgunean zehazturiko](#) pausoak emanaz.

SARIAK: 50.000 euro baino gehiago banatzen dira sarietan. Parte hartzaile bakoitzak oroigarria jasotzen du. Hemen dituzue sari garrantzitsuenak:

- TXAPELDUNAK: Txapela, garai ikurra, 3.000€ eta nazioartera* bidaia lau lagunentzat. (*KARIBERA dena barne)
- TXAPELDUN ORDEAK: Garai ikurra, 1.500€ eta bi lagunentzat nazioartera* bidaia. (*KARIBERA dena barne)
- 3. BIKOTE SAILKATUA: 750€ eta asteburuko egonaldia lau lagunentzat
- 4. BIKOTE SAILKATUA 500€ eta Euskaraz ikasteko urte osorako 2 matrikula.
- 5.etik 8.era SAILKATURIKO BIKOTENTZAT 250€
- 9.etik 16.era SAILKATURIKO BIKOTENTZAT 100€





EUSKAL HERRIKO ehmus.eus

MUS FEDERAZIOA

Euskal Herriko Mus Txapelketa

www.ehmus.eus

- HERRIALDEKO FINALETAN Txapelak, garai ikurrak, asteburuko egonaldiak, bazkari eta afariak...
- PARTE HARTZAILE BAKOITZARENTZAT kamiseta bat parte hartzea eskertzeko.

DATAK eta EPEAK: Azaroa, abendua, urtarrila eta 2024ko otsailaren 25 arte herrietako kanporaketak burutuko dira, 2024ko martxoaren 9n zazpi herrialdetako kanporaketak ospatuko dira eta 2024ko martxoaren 23an, final nazionala Zuberoako **ALTZAI herrian**.

HERRIALDETAKO KANPORAKETAK: 2024ko martxoaren 9an ospatuko dira.

- Arabako herrialdeko kanporaketa: **ARTZINIEGAN**, lekua eta ordua zehaztuko dira
- Bizkaiko herrialdeko kanporaketa: **URDUÑAN**, lekua eta ordua zehaztuko dira
- Behe Nafarroako herrialdeko kanporaketa: **ORTZAIZEN** Asteburua ostatuan.
- Gipuzkoako herrialdeko kanporaketa: **HERNANIN**, , 15:00etan. lekua zehaztuko da
- Lapurdiko herrialdeko kanporaketa: **URRUÑA-PAUSUKO** Xaia ostatuan 15:00etan.
- Nafarroa Garaiko herrialdeko kanporaketa: **IRUÑEAN** Alde Zaharreko Arrano elkartearen 8:30etan
- Zuberoako herrialdeko kanporaketa: **EZPEIZE-ÜNDÜREINEN** lekua eta ordua zehazteke.

INFORMAZIOAREN JARRAIPENA WEBGUNEAREN BIDEZ

www.ehmus.eus webgunean aurkitu daitezke herrietako informazio oro bai eta txapelketan parte hartzeko behar den guztia. Txapelketaren antolakuntzan parte hartu nahi dutenek ere bertan aurkitu ahalko dituzte antolakuntzarako irizpide guztiak.

Euskal Herrian, 2023ko azaroaren 8an.



EUSKAL HERRIKO ehmus.eus
MUS FEDERAZIOA

Kontaktua: Raul Gartzia
Telefonoa: (0034) 649 995 038
Email: idadzkaritza@ehmus.eus
Web orria: www.ehmus.eus



TRADUCCIÓN

XV CAMPEONATO DE MUS DE EUSKAL HERRIA

Está en marcha la fase de pueblos y barrios del campeonato nacional que une a los *muslaris* de las siete provincias.

El 23 de marzo de 2023 se disputó el 14º Campeonato de Euskal Herria 2022-2023. Campeonato de mus en la localidad vizcaína de Amorebieta. En la final hubo un duelo rápido entre Nafarroa Garaia y Behe Nafarroa, al final las txapelas se fueron a Irissarri. RAMUNTXO ONDARTS y THIERRY OLAIZOLA se impusieron a JOSÉ LUIS LARA y HERVE CASA, de San Martins Unx. [info+](#)

POR QUE EL CAMPEONATO DE MUS DE EUSKAL HERRIA?

Organizamos el campeonato de mus con el objetivo de juntar a muslaris de todo Euskal Herria, visto que es uno de los juegos de mesa más populares de Euskal Herria y los múltiples campeonatos de mus que se organizan,

En este camino creamos la Federación de Mus de Euskal Herria. Lo componen muslaris de los siete herrialdes, superando la división administrativa que vivimos, organizando y desarrollando el campeonato como una nación, y al mismo tiempo concienciando de nuestra identidad nacional.

Respetando las distintas costumbres y formas de juego locales, ofrecemos las fases locales y después con un reglamento de mus unificado organizamos las siguientes fases en todo Euskal Herria.

PUEBLO A PUEBLO, PROVINCIA A PROVINCIA

Queremos dar una importancia especial a su extensión, queremos llegar y organizar el campeonato en el mayor número de pueblos y barrios, para ello quien quiera organizar o ayudar en la organización. Puede visitar nuestra web <https://www.ehmus.eus> o ponerse en contacto con nosotros, les pondremos en contacto con el coordinador de la zona donde este, así iremos tejiendo y haciendo más grande la red de muslaris de Euskal Herria.

Hasta hoy en día, la final de mus de Euskal Herria ha visitado los 7 herrialdes y este año vuelve a **Zuberoa, en concreto al municipio de Altzai. La final se celebrará el 23 de Marzo del 2024** y ese día se unirán mus y fiesta elaborando un programa ayudados por los habitantes y el ayuntamiento de [Altzai-Altzabeheti-Zunharreta](#)

Desde la federación de mus de Euskal Herria, queremos hacer un llamamiento a la participación. Allí donde se celebran campeonatos locales a jugar, y en aquellos en que en ediciones anteriores no hemos podido llegar, queremos hacer un esfuerzo especial, y aquellos voluntarios que estén dispuestos a organizar y ayudar, les hacemos un llamamiento para que se pongan en contacto con nosotros, todo con el fin de extender el campeonato.

INFORMACION GENERAL Y DATOS

Ya está en marcha el XV campeonato de mus de Euskal Herria. Aquí tenéis algunos datos del campeonato...



PARTICIPACION: En el campeonato del año pasado jugaron aproximadamente 4.000 personas en más de 220 pueblos y barrios de Euskal Herria, recordamos la participación de años anteriores:

- En el campeonato de 2009 participaron 1.120 parejas.
- En el campeonato de 2010 participaron 1.800 parejas.
- 2.200 parejas participaron en la competición 2011.
- En el campeonato de 2012 participaron 2.250 parejas.
- 2.060 parejas participaron en el campeonato de 2013.
- 2.125 parejas participaron en el campeonato de 2014.
- 2.100 parejas participaron en el campeonato de 2015.
- 2.050 parejas participaron en el campeonato de 2016.
- 2.040 parejas participaron en el campeonato de 2017.
- En el campeonato de 2018 participaron 2.150 parejas.
- En el campeonato de 2019 participaron 2.300 parejas.
- El campeonato del 2020 no se disputo
- En el campeonato de 2021 participaron 2.000 parejas.
- En el campeonato de 2022 participaron 2.100 parejas.

Cualquier habitante de los siete herrialdes de Euskal herria puede participar en el campeonato. En los campeonatos que se organizan en su pueblo o barrio, inscribiéndose o acudiendo el día de la partida, y pagando los 20€ de inscripción por pareja, es suficiente.

En los últimos años la participación Femenina y De jóvenes está aumentando. Seguiremos trabajando para fortalecer y crecer en la participación de estos colectivos..

EXTENSION: El campeonato de Euskal Herria se desarrolla en más de 220 pueblos de Euskal Herria. Todo el que quiera organizar el campeonato en su pueblo o barrio, que elija el enlace que hay en la página web www.ehmus.eus

PREMIOS: Se reparten premios por valor de más 50.000€.A cada participante se le entrega un recuerdo por su participación. Aquí tenéis los premios más importantes:

- CAMPEONES: 3.000€ y un viaje Internacional para cuatro personas (AL CARIBE, Todo incluido)
- SUBCAMPEONES:1.500€ y un viaje Internacional para dos personas (AL CARIBE, Todo incluido)
- TERCEROS:750€ y Fin de Semana AGROTURISMO para cuatro personas
- CUARTOS:500€ CURSO DE EUSKARA, 2 Matriculas.
- DEL 5º AL 8º: 250€ por pareja
- DEL 9º AL 16º: 100€ por pareja
- EN LAS FINALES DE HERRIALDE: Txapelas, Trofeos, Fines de semana en AGROTURISMOS, comidas., Cenas...

A TODOS LOS FINALISTA DE LA FINAL NACIONAL: Una camiseta recordatorio para agradecer su participación.





FECHAS Y PLAZOS: Noviembre, Diciembre, Enero y hasta el 25 de febrero del 2024, fase clasificatoria local, el 9 de marzo de 2024 las finales en los siete herrialdes y el 23 de Marzo de 2024 final Nacional en Zuberoa, en el pueblo de Altzai.

LAS ELIMINATORIAS PROVINCIALES: Se celebrarán el 9 de marzo del 2024.

- **Arabako** herrialdeko kanporaketa: **ARTZINIEGAN**, lekua eta ordua zehaztuko dira
- **Bizkaiko** herrialdeko kanporaketa: **URDUÑAN**, lekua eta ordua zehaztuko dira
- **Behe Nafarroako** herrialdeko kanporaketa: **ORTZAIZEN** Asteburua ostatuan.
- **Gipuzkoako** herrialdeko kanporaketa: **HERNANIN**, , 15:00etan. lekua zehaztuko da
- **Lapurdiko** herrialdeko kanporaketa: **URRUÑA-PAUSU**ko Xaia ostatuan 15:00etan.
- **Nafarroa Garaiko** herrialdeko kanporaketa: **IRUÑEAN** Alde Zaharreko Arrano elkartean 8:30etan
- **Zuberoako** herrialdeko kanporaketa: **EZPEIZE-ÜNDÜREIÑEN** lekua eta ordua zehazteke.

SEGUIMIENTO E INFORMACION A TRAVES DE LA WEB

www.ehmus.eus página web se puede encontrar la información local y todo lo necesario para participar. Las personas que deseen colaborar en la organización también tienen allí toda la información que necesitan.

En Euskal Herria, el 8 de noviembre de 2023

